

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko urriaren 23an aurkeztuko du

Alex Katz. Hemen eta orain

Alex Katz. Hemen eta orain

- Komisarioak: Michael Rooks, Wieland Family Curator of Modern and Contemporary Art, eta Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoa
- Datak: 2015eko urriak 23–2016ko otsailak 7
- Erakusketan Katzen 35 paisaia daude; bertan “abstrakzioaren gramatika” jakin bat erabiltzen du eta mihisea oso-osorik lantzen du, artistaren hitzetan “orainaldia” jasotzeko, hots, ikustearen eta hautematearen aldiberekotasuna. Katzek une hori irudi bat fokuratu baino lehen gertatzen den “flash” bat dela dio.
- Erakusketak asmo du Katzen ibilbidean paisaiak berebiziko garrantzia izan duela aditzera ematea —maiz, alderdi hori ez da aintzat hartzen—. Ikusleak natura zuzenean miatu ondoren egindako paisaia erraldoietan murgiltzeko aukera izango du; lan horiek honakoen inguruko eztabaida sorrarazten dute: hautematearen eta kontzientziaren elkargunea; artearen eta naturaren arteko lotura; eta unean bertako sublimearen zerizana.
- Katzek “hautematearen flash bat” jaso nahi du mihisetan, eta horren adibide bikain dira *Arratsa eta Ilunabarra* lanak. *Arratsa* margoan uda amaierako arrasti bat eta uneko berotasuna irudikatu zuen pinu lerden batzuk zeru gorri baten gainean zehaztuz; *Ilunabarra* lanean, aldiz, ilargiaren zilar-koloreko argi dirdiratsua zuhaitz errenkada batzuen artetik antzeman daiteke.
- *Erreka beltza* saileko lanak txiki-txikiak eta intimoak zein handi-handiak eta inguratzaileak dira. Serieko gaia artistaren jabetza bat, Maine estatuan, zeharkatzen duen erreka txiki bat da. Margolanetako irudiek baso trinkoak ematen badute ere, egiatan paisaia horren isla dira. Uretan islatutako irudiak lanen gai nagusia direnez, Katzek hautematearen zientziari erreferentzia egiten dio; halaber, “orainaldia” eta “hautematearen flasha” jasotzen saiatzen da.

Guggenheim Bilbao Museoak *Alex Katz. Hemen eta orain* erakusketa aurkezten du. Artistaren ibilbideko azken 25 urteetan paisaiak izandako lekua aztertzen du 35 lanen bidez; horietan Katzek irudikatutako motiboak unean bertan zelan antzematen eta sentitzen diren jaso nahi izan du, alegia, orainaldia jaso nahi izan du. Atlantako High Museum of Art-ek antoatu du, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan.

Alex Katz (Brooklyn, 1927) pintorearen lana Bigarren Mundu Gerra ondorengo AEBko artearen kanonaren parte da, baita gaur egungo abangoardiaren zati ere. 1950eko hamarkadan hasi zen lanean, eta orduko lanak figuratiboak dira, abstrakzioa nagusi bazen ere; kritikari aurka egin zion, garai hartan ez baitziren onargarriak irudi ezaguterraza, figurazioa, zuten lanak. Espresionismo abstraktuak bultzatzen zuen irudirik ezaren kontra bazegoen ere, mugimendu horretako energia eta formen logika bereganatu zituen. Jackson Pollocken ekintza-pinturan oinarritutako margotzeko

modu arin eta fisikoa landu zuen; Katzentzat Pollock *all over* lanak aurkikuntza bat izan ziren. Artistak esan zuenez lan egiteko modu horrek “arin gertatzen den guztia jasotzeko aukera” ematen zion.

Katzen margolanetan guneko piktoria ez da sakona, eta lerroak garbi-garbiak, murriztaileak eta oso deskriptiboak dira. Horrela honakoen inguruko eztabaida sorrarazten saiatzen da: hautematearen eta kontzientziaren elkargunea; artearen eta naturaren arteko lotura; eta unean bertako sublimearen zerizana. Erretratuak egiteagatik ezaguna den arren, Katzek ibilbidearen hasieratik margotu ditu paisaiak, estudioan zein bizirik.

Irudia eta paisaia

Maine-ko paisaia Katzen artearen gai gailenetako izan da 1949tik. Urte horretan, udan, eta estatu horretan, ikasi zuen bizirik margotzen —bizirik margotzeak, naturan bertan margotzeak, ordutik ere leku garrantzitsua du bere lanean—. Udazkenean, neguan eta udaberrian kanpoaldean, Manhattan-en, ibili zen pintatzen. *Urtarrilaren 3a (January 3)* laneko gaia Lower Manhattango City Hall Park da.

Hiru zatiko margolan horretan Ada, emaztea, agertzen da, erdi-erdian. Ada ere 1957tik, elkar ezagutu zutenetik, maiz irudikatu du. *Urtarrilaren 3a* lanean haren erretratuak City Hall Park-en neguko irudi hotz baten gainean nabarmentzen da, kapelaren eta ezpainaren kolore biziei esker. Erretratuak handitu eta ebaki zuen artistak, film baten *jump cut* bat balitz bezala, eta horrela margolanaren denbora eta espazioa moztea lortu zuen.

Orainaldia

Irudikatutakoa fideltasun osoz jasotzea baino, Katzen asmoa da irudikatutakoa ikustean hautematen dena margolanera eramatea. Une hori, artistarentzat bat-bateko “flash” baten modukoa da, eta ikusten duguna fokuratu baino lehen gertatzen da; une horri, hain zuzen, “orainaldi” esaten dio. *10:30 (10:30 am)* lanean, adibidez, Katzek irudia hautematearen une hori urki segida bat gisa aurkezten digu; argi-izpiek bizitasuna ematen diote lanari eta, hartara, hautematea bizipen epiko eta limurtzaile bihurtzen dute.

Katzen formak soilak, sinpleak, dira; ezaugarri hori berebizikoa da orainaldiko nozioa aditzera emateko. Nahia egiten ditu horrelako lerroak eta nahia jartzen ditu bata bestearen ondoan forma jakin batzuk; emaitza horretara heltzen da estudioan konposizioak behin eta berriro handitu eta eraldatzen baititu. Jatorrizko konposizioa fintzeko eta kalibratzeko lan horren bidez, Katzek irudi zuzena, laburbildua eta trinkoa lortzen du.

Nolanahi ere, artistak esaten duenez haren lanaren oinarriak abstrakzioan daude. Izan ere, haren konposizioek berezgarri dute bat-batekoak ematen dutela eta besteak beste Jackson Pollock-ekin lotzen den keinu-pintura gogora ekartzen dutela. Hala ere, Katzek aurretik zehazten du zer margotuko duen, eta horrek askatasuna ematen dio arinago lan egiteko, “orainaldia” bilatzeko, margoa azkar eta modu oso fisikoan emateko.

Loreen margolanak

Elkarrizketa batean, 1968an, Katzek esan zuen loreen margolanak jai-eszenen pinturen jarraipena zirela. Loreak “gainjarritako bolumenak” zirela azaldu zuen, elkartutako pertsona irudien modukoak, espazio piktorikoan barrena gainjartzen baitziren. Izan ere, Katzen paisaien funtsezko gaiak dira forma, azalera, espazioa eta argia, naturan agertzen diren eta elkartzen diren moduan.

Artistaren paisaietan mugimendu bat nabari daiteke, dantza baten antzekoa; ikuslea mugimendu horrekin bat egitera gonbidatzen du, ikuslearen pentsamenduen eta emozioen arabera. Argia eta formak mugimenduaren sinkopa bat dira loreen lanetako gainazaletan. Margolan horiek azkar eta segurtasunez pintatu zituen, margoa lehortzen utzi gabe. Loreak giza gorputzarekin lotu ohi diren deserosotasun zein grazia egoerak irudikatzen dituzte. Katzek margotutako arrosak petalo mamitsuak eta hosto horzdunak dituzte; basatiak eta oldarkorrak dira, loreen ohiko irudi atseginaren oso bestelakoak.

“5 ordu”

5 ordu (5 Hours) bideoa artistaren seme Vincent Katz poeta eta arte-kritikariak eta haren emazte Vivien Bittencourt argazkilari eta zinemagileak sortu zuten. Erakusketan ikusgai den *Urtarrilaren 3a* lanaren sortzea dokumentatzen du. Bideoan artista ikus dezakegu paisaia handi horren hiru zatiak —erdiko erretratua, emazte Adarena, eta alboetako neguko eszenak— jorratzen.

Filmean Katzek margotzean darabilen dinamismoa jasotzen da. Mihisera eskala osoz — Erremanizentu italiarrean garatutako teknika— eramandako marrazki batetik abiatzen da; azken konposizioa arin margotzeko eta finkatzeko aukera ematen dio. Bideoaren izenburuak aditzera ematen duenez, bost bat ordutan amaitutzat ematen du margolana.

***Erreka beltza* pinturak**

Hogei urtez, udan, Katz Mainera joan izan da, etxetik eta estudiotik gertu duen errekatxo bat pintatzera. *Erreka beltza* saileko pinturak tamaina askotakoak dira, txiki-txikiak eta intimoak zein erraldoiak eta inguratzaileak. Serieko lanetako askotan errakaren uran islatutako paisaia ikus dezakegu; alderantziz, azpikoz gora, dago paisaia. Irudi horien bidez, ikustearen fenomenoari erreferentzia egiten dio: irudiak kornean islatzean azpikoz gora daude, baina burmuinak “zuzen” hautematen ditu.

Erreka beltza 16 (Black Brook 16) lanean pintzelkada bertikal solte batzuek eta uraren gaineko burbuila batzuek —uretan flotatzen dute edo bertan islatzen diren ez dakigu— lana eteten dute. Errekaren ertzean enborrak daude, pintzelkada lodi baina arinez margotutak, eta mamuak ematen dituzte, iluntasunetik dagertzan oroitzapenen aztarnak.

Amaren ametsa

Pintura erraldoi hau Katzen hiztegi formala eta poetikoa laburbiltzen du. Eszena bereko lau ikuspegi dira, ilunabarreko lau unetan margotutakoak. Denbora-saltoak iradokitzen ditu lanak. Konposizioak olerki baten neurria edo musika-lan baten erritmoa dakartza gogora; aldi berean, sekuentzia bat zehazten du mihisean zehar, espazioaren zabaltzearen eta konpresioarena. Denbora-planoan eta formetan aldaketak badira era, *Amaren ametsa (My Mother's Dream)*

lanaren pintura-planoa amaigabea de ematen du. Formatua ere erraldoia da. Hartara, bi ezaugarri horiei esker, hausnarketara gonbidatzen gaitu, baita oroitzapenetan murgiltzera; ikuslea emozioen bidez irensten du. Katzek teknika-bikaintasun guztiak erabili zuen lan honetan, baita haren begi zorrotza, eta biak ere modu ikusgarrian aditzera ematen ditu lan honetan, hautematea eta oroimena bat egiten baitute.

Arratsa eta Ilunabarra

Arratsa eta *Ilunabarra* lanak atzealde beltza dute; lehenengoa, baina, gorri biziz ziprztinduta dago; bigarrena, aldiz, turkesaz. *Ilunabarra* konfiantza handiz margotu zuen, eta pinudi baten adaburuetatik ilargiaren izpiak igarotzen diren une iragankorra jasotzen du.

Arratsa 1 eta *Arratsa 3* pinturetan, Katzek arrastiaren argi-aldaketa etengabea aditzera eman zuen, pinu-ilara batetik desagertzen den heinean. Konposizio bereko koadro hauen alde txikiek — koloreen gradazioa, arrastiko zeruaren aurka zehaztutako adar pisutsuen beherako mugimendua— hautematea beherala gertatzen dela eta oso aldakorra dela azpimarratzen dute.

ALEX KATZ DIDAKTIKA: *IN FOCUS*

In Focus izena eramango dute Museoko 105. aretoetako erakusketa monografikoek Didaktika atalak. Sakonetik aztertuko dituzte artista bakoitza. Erakusketa honetarako **komisarioaren solasaldi bat** eta hainbat gidaridun **bisitaldi** izango dira; gidaridun bisitaldi horiek zenbait artistek zuzenduko dituzte, zeinek artearen eta naturaren arteko harremana ere jorratzen duten. Ohiko eskaintzek ere osatuko dute egitaraua: *Partekatutako hausnarketak* ekimenak eta orientatzaileen zerbitzuak.

Alex Katz sakonetik (Urriak 21, asteazkena, 18:30)

Erakusketaren komisario Michael Rooks —Wieland Family Curator of Modern and Contemporary Art— eta Alex Katz solasean izango dira, artistaren artelanak Museoko 105. aretoan aurkezten direla eta. Lekua: Museoko Entzungela. Doako sarrerak txarteldegian eta webgunean eskuragarri.

Alex Katz: bisitaldiak eta hausnarketak

Honako artista hauek azalduko dizkigute Katzen inguruko haien hausnarketak.

- Juana García-Pozuelo, azaroak 19, osteguna
- Lucía Onzain, azaroak 23, osteguna
- Juan Pérez Agirregoikoa, azaroak 10, osteguna

Topagunea: Zero Espazioa. Orduetgia: 18:30–19:30.

Sarrerak: 2 € Lagunak eta 3 € publiko orokorra (ez dago barne Museorako sarrera; nahitaezkoa da webgunean erreserba egitea). Gutxienez 8 pertsona talde bakoitzeko

Partekatutako hausnarketak

- Arte arduradunen ikuspegia: azaroak 4, asteazkena. Petra Joos, erakusketaren komisarioa
- Funtsezko kontzeptuak: azaroak 11, asteazkena. Marta Arzak, Hezkuntza eta Interpretazio Arloko Zuzendariordea

Topagunea: informazio-mahaia.

Sarrerak: 2 € Lagunak eta 3 € publiko orokorra (ez dago barne Museorako sarrera; nahitaezkoa da webgunean erreserba egitea). Gutxienez 8 pertsona talde bakoitzeko
Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Aretoetako orientatzaileak

Erakusketen edukietan sakondu eta informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan aretoetako orientatzaileekin. Museoak egunero, 11:00etatik 14:00etara, dohainik eskaintzen du zerbitzu hau.

Azaleko irudia:

Alex Katz

Arratsa 1 (Sunset I), 2008

Olio-pintura liho gainean

274,3 x 213,4 cm

Artistaren eskaintza

© VEGAP, Bilbao, 2015

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Arloa

Tel.: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.es webgunean daukazu eskuragarri (prentsa eremua).

Prentsa irudiak:
Alex Katz: hemen eta orain
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Alex Katz
Erreka beltza 11 (Black Brook 11), 1990
Olio-pintura liho gainean
274,3 x 365,8 cm
Honen eskaintza: Peter Blum, New York
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz
Amaren ametsa (19:45 astelehena; 19:45 asteartea; 19:45 asteazkena; 19:45 osteguna) [My Mother's Dream (7:45 pm Monday; 7:45 pm Tuesday; 7:45 pm Wednesday; 7:45 pm Thursday)], 1998
Olio-pintura liho gainean
320 x 868,7 cm
Artistaren eskaintza
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz
Urtarrilaren 3a (January 3), 1993
Olio-pintura liho gainean
199,4 x 393,7 cm
Bilduma pribatua, Londres
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz
10:30 (10:30 am), 2006
Olio-pintura liho gainean
365,8 x 487,7 cm
Artistaren eskaintza
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz
Isla 7 (Reflection 7), 2008
Olio-pintura liho gainean
274,3 x 548,6 cm
Artistaren eskaintza
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz
Arratsa 1 (Sunset 1), 2008
Olio-pintura liho gainean
274,3 x 213,4 cm
Artistaren eskaintza
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz
Arrosa zuriak 9 (White Roses 9), 2012
Olio-pintura liho gainean
274,3 x 548,6 cm
Artistaren eskaintza
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz
Erreka beltza lanerako estudioa (Study for Black Brook), 1988
Olio-pintura taula gainean
22,9 x 30,5 cm
Artistaren eskaintza
© VEGAP, Bilbao, 2015



Alex Katz-en erretratua, 2011.
Vivien Bittencourt-en argazkia

